

# EZAGUTU DEZAGUN LESAKA 2023

## 3-6. mailakoentzako GALDETEGIA



Izen abizenak: \_\_\_\_\_ Maila: \_\_\_\_\_

1.-Beti-Gazteko sokatira taldeak hainbat domina lortu aurtengo mundu txapelketan. Txertatu zuk tiralari batekin ateratako argazkia.

2.-Lesakako ze bi futbol peñek partekatzen dute Koxkila egoitza bezala?

3.- Zenbat urte zituen Jose Migel Ariztegik Beti-Gazteko eskudoa diseinatu zuenean? **14**, **20**, edo **25**

4.-Idatzi Lesakako bi gaztandegiren izena.

5.-Prozesioetan, Lesakako Banderari laguntzen, zinegotzi batek alabarda bat eramaten du. Ze urtetakoa da alabarda hori?

6.-Nor izan zen Lesakako alkate 1917an?

7.- Ze bertze izena du Erlajauregiak?

8.-Irubideko zubitik, frontoira bide zaharretik joaten ahal da. Zenbat zuhaitz (handiak, antzekoak direnak) daude tarte horretan, erreka eta bidaxkaren artean?

9.-Noiz inauguratu zuten Zantzonea jatetxea?

10.-Zein etxetakoa da argazki hau?



11.-Frontoiaren atzeko aldean, kanpotik badago markagailura goitzeko aukera. Zenbat eskailera goitu behar dira?

12.-Iazko denboraldian Beti-Gazteko mutil helduen taldeak hirugarren mailan jokatu zuen. Zeinek erosi zuen lehenbiziko sarrera Mastegin?

- 13.-Haizegua ostatuak ze izen zuen aintzinetik?
- 14.-Zenbat koadro beltz daude Kioskoaren zolan?
- 15.-Ze etxe dago Txipirinea eta Marigalantenearen artean?
- 16.-Sanferminak baino zazpi igande lehenago, Lesakako Txistulariak karrika bueltarekin hasten dira. Ze abesti jotzen dute azken igandean?
- 17.-Bianditz mendiak zenbat metroko altuera du?
- 18.-Nor izan zen iazko urterarte Lesakako Akordeolarien zuzendari?
- 19.-Non dago Beti-Gazteren egoitza soziala?
- 20.-Ze izengoitia ematen diote Lesakari bere zubiei esker?
- 21.-Ze mendetakoa da Eskol-Ttiki?
- 22.-Beti-Gazteko zuzendaritzan kide berriak sartu dira 2023an. Horietako baten izen-abizenak idatzi.
- 23.-Nor da Basurde Elkarteko lehendakaria?
- 24.-Zein urtetako dokumentuan agertzen da lehenbizikoz Lesakako zigilu munizipala?
- 25.-Plaza Zaharran urtetan goxoki denda bat egon zen. Ze izen zuen bere azkeneko jabeak?
- 26.-1999an Bidasoa Ikerketa Zentroaren Koadernoak argitaratu zen. Zein izan zen editorea?
- 27.-Garai batean Antepatan pizina egon zen. Zer dago gaur egun paraje horretan?
- 28.-Orain dela 40 bat urte Lesakan haur dantzarien lehenbiziko taldea osatu zen. Zein zen arduradun nagusia?
- 29.-Lesakan jaiotako ze idazle ospetsu bizi da Parisen 1993az geroztik?
- 30.-Ze izengoitia du Tomas Rekondoren omenez musika pieza bat konposatu zuen musikariak?